



13 Aplikazio-jarduera (IKT)

1 Egokia al da honako jarraibide-testu hau? Bi alderdi egokitu behar zaizkio. Idatz ezazu modu egokian.

Forma geometrikoekin irudiak sortzen :

- Osa itzazu nahi adina irudi moztutako forma geometrikoekin.
- Amaitzeko, kolorezta ezazu, eta, nahi izanez gero, apaindu egin dezakezu.
- Ondoren, aukeratu gehien gustatu zaizun irudi geometrikoa, eta kolaz itsats ezazu kolorezko kartoi mehe batean.
- Lehenik, moztu fitxan dituzun irudi geometrikoak. Gehiago behar izanez gero, gelakidearekin truka ditzakezu.




2 Hurrengo artelana egiteko jarraibideak dituzu jarraian, baina aginduak bata bestearen atzetik emanda daude. Beraz, egoki idatziko dituzu, teknologiak erabiliz. Horretarako, egin jarraian eskatzen zaizuna:

TESTUA ON-LINE IDAZTEKO JARRAIBIDEAK

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> ➤ Bana itzazu aginduak lerro bakoitzean agindu bakar bat jarriz. ➤ Tartean, balio ez duen aginduren bat ere egon liteke; hala bada, ezabatu. ➤ Jarri ordenan banatutako aginduak, hautatuz eta arrastaka eramanez. ➤ Aginduak ordenan jarritakoan, erabil itzazu aurreko jarduerako denbora-antolatzaileak, eta idatziz jarri nahi duzun aginduetan. Antolatzailearen ondoren koma jarri behar duzu. | <ul style="list-style-type: none"> ➤ Ordena zehaztua duzunean, eta antolatzaileak kokatuta, erabili buletak agindu bakoitzean. ➤ Idatzi izenburua jarraibide-testuari, lerra larriz eta zentratua. ➤ Aldatu letra tipoa eta tamaina, gustukoena duzuna aukeratuta. Probak egin ditzakezu. ➤ Mugi ezazu argazkia lekuz, eta jarri nahi duzun lekuan. ➤ Azkenik, berrikusi testua. |
|---|---|

Bete kolaz irudia. Marraz ezazu txakurraren irudia edo beste irudiren bat. Idatz itzazu letrak irudia margotzerakoan. Jarri gainean aldizkari eta egunkari zatiak. Moztu itzazu aldizkari eta egunkarietako zatiak guraizearekin. Utz itzazu lehortzen paper zatiak.

Kolore-tanta, Peter Clarck



-
-
-